

Narratiboa.

i gizonaren botere egarriaren ondorioa, Gerra!


Etxeko hormetatik bestaldera, hotza zen nagusi. Haize lehun, baina era berean izoztu bat zebilen hara eta hona, etxe tarte eta txoko guztietan soinu hotza utziz. Etxaurreko lorategiko belarra, kristalez estalirik zegoen; tarteka, hodei beltzen artetik ihes eginda, lurrera ahulki iristen ziren izpi-epelak, bertan isladapen txikia sortzen zutelarik kristala leunki urtuz.

Etxe barruan, giroa bestelakoa zen. Berogailuek eta tximiniako suak, giroa xamur eta epela bihurtzen zuten. Izeba, bazkaritarako jana prestatzen ari zen; ni, bien bitartean, tximiniako suari begira nengoen. Suaren berotasunak, egurra poliki-poliki belztu eta errauts bihurtzen zuen; zenbait errauts txapar, ondoren, kearekin nahastuta, tximinia zuloan, behetik-gora joaten zirelarik; ondoren, airean sakabanutuz. Erretzen zen einean, egur gehiago gehitzen nion, bizirik mantentzeko. Honela nengoen, suaren dantzari eta txinparta gorietan begira, kanpoan zenbait ibilgailu gelditzen entzun nituenean; honi, hots gogor eta gortzaile batzuk jarraitu zituzkion; pistola baten tiro hotsak ziren.

Korrika batean, aurkitzen nintzen gelatik irten, izeba zegoen sukaldearen eta komunaren artean aurretik iragan eta nire logelara sartu nintzen. Ondoren, etxaurreko errepidera ematen zuen leihora hurbildu eta kortina ostetik errepidetan gertatzen zena ikusi ahal izan nuen. Izeba ere berehala agertu zen nire gelan eta nire sorbaldaren gainetik, neu bezala erdi ezkutuan, jakin nahia asetzeko asmoz, begira hasi zen.

Han zeuden, «jeep» deitzen dioten auto horietako bi eta hiru kamioi, gudetan erabiltzen diren horietarikoak; denak ere berde iluna eta marroiaren arteko nahasketaren kalorekoak.

«Jeep»etako batean, gidariaren ondoan, makila baino ere zuzenago jarrita, ondo jantzitako eta uniformedun gizon bat zegoen. Kapitainek erabiltzen duten txapeletakoa zeraman eta buelarrean, bihotzaren parean, hainbat domina. Begiak, betaurreko beltz batzuek estaliak zuten. Eta aurpegia! Hura zen aurpegia, hura. Altzairua baino gogorrago eta mugigaitzagoa zen. Bizitza osoan ere, ezpainen haiek, ez zuten irrifar txikiak ere irudikatu.



Inguruá begiztatu eta utzi egin zuen jazarlekua. Motelki, baina beti ere bizkarra zut zuela, jeikitzen joan zen. Lehenengo, ezker-oina jarri zuen lurrean, jarraian eskuina jarri zuelarik. Zutitu eta zenbait pausu eman zituen aurreantz; azkenik, osoki ikus nezateen.

Inguruá, berriz, begiztatu zuen eta ondoren, oihu ozen bat jarri zuen aidean. «Jeep» eta kamioietan zain zeuden gizon guztiak zitzu bizian irten ziren, goitik beheraino armaz josirik. Irten bezain laster, auzoan zehar sakabanatu ziren, etxeetarantz zuzenduz. Beraietako hiru, gure etxerantz abiatu ziren. Hau ikustean, ihes egiteko beharra eta nahia sentitu nuen, baina erreakzionatu nuenerako berandu zen. Iadanik, soldaduek atea lurreratua zuten eta beraien eskuetan erori ginen. Armekin eta bultzaden artean, etxetik atera, eta kamioien ondoan biltzeta behartu gintuzten. Han zeuden dagoeneko zenbait auzokide. Denak ere nire pare, izua nagusi zutela eta gertatzen zenaren ideia izpirik txikiena ere gabe. Lurrean jezarrerazi gintuzten eta denok multzo batean batu ginen, borobil estu bat eratu arte. Babes bila genbiltzan, artaldea otsoarengandik bezala, baina ezin inola ere babestu otsoarengandik. Izu aurpegiak ageri ziren bai ezkerretik bai eskuinetik.

Aurpegia hilotzaren pare neukan, eskuak berriz, ez zitzaizkidan inola ere gelditzen, hotzak dardar zeudela zirudien; baina ez zen hotza, ez horixe. Beldurra zen dardara haiek eragiten zizkidana. Soldadu haienganako beldurra, gurekin zer egingo zutenaren beldurra, zintzilik zeramatzaten armenganako beldurra; denari nion beldurra, beldurra, beldurra...

Lasaitzen hasi ginenean, buruzagia aurrez aurre begira jarri zitzaigun eta...

—Entzun denok! —garrasi egin zuen ahots sendoz— Hauxe adierazi behar dizuet, zuetako inori minik ez egiteko agindu dut, baina ihesean hasten dena, birritan pentsatu gabe zulatuko dugu.

—Zer da guzti hau? —galdetu zuen jendeartetik irtendako ahots batek.

—Lasaitu, iluntzerako dena bukatuta egongo da, gure indarrak parlamentuaz jabetzen ari dira eta eguna bukatzerako Kwarsoff izango da agintari berria. Bien bitartean, hiria menderatzea gure esku geratu da.

Zur eta lur geratu nintzen. Estatu kolpea zegoen gertatzen ari zenaren atzean. Gai horren inguruko burutapenak eta galderak izan nituen behin eta berriro: zer gertatuko da? Itzuli ahalko naiz nire etxera?

Itxaron eta itxaron egon nintzen, gertatuko zenaren zain. Eguzkiak bere punturik altuena hartua zuen eta han nengoen denbora nola iragan asmatu ezinik, auzoko errepidearen barretetik, kamioi bat irten zenean. Kamioia, gu geunden lekurantz etorri zen eta iristean ondoan geratu zitzaigun. Bertatik beste soldadu bat jaitsi zen eta buruzagiari zerbait esan zion.

—Tira ba, gizon eta mutil gazteak igon daitezela kamioira, haurrak eta agureak gera daitezke —esan zuen jarraian buruzagiak.

Agindua jaso bezain laster, denak hasi ziren esana betetzen. Kamioia betetzen zihoan eta oraindik jezarrita jarraitzen nuen, mugitzeko asmorik gabe. Igon ziren gainontzeko denak. Igoteko geratzen zen bakarra nintzen.

—Hi, mutil, mugitu hadi! —zuzendu zitzaidan soldadu bat.

—Baina... nik ez dut joaterik nahi.

Hurbildu eta besotik bortizki helduz...

—Entzun duk, hemen emakume eta agureak soilik! Eta kamioirantz zuzendu ninduen. Atzera egiten nuen, baina ni baino indartsuagoa zen eta kamioirantz hurbilduz nindoan. Etsi eta kamioian sartzea izango zatekeen burutsuena, baina, honako erreakzio hau izan nuen; ez dakit nola, ohartu nintzenerako soldadua ostikada batez lurreratua nuen eta ihesari eman

nion. Beste soldadu bat besoak zabalik jarri zitzaidan bidea ostopatuz, honi, hanta joko habil bati esker izkin egin ahal izan nion. Orduan, tiro hotsak aditu nituen nire atzean. Etxe alde-rantz egin nuen lasterka, baletatik ihes egiteko asmoz. Baina lorategiko hesia iragan bezain laster, bala bat haragia urratuz, besoan barneratu zitzaidan, hezurreraino sartuz. Hala ere, korrika jarraitu nuen eta etxe-osteko larrosa batzuen atzean babestu nintzen. Lurrean jezarrri eta ahalik eta gehien batu nintzen, arnasa ahalik eta isilen hartuz. Zenbait bota ikusi nituen nire aurrekaldetik igarotzen; zorionez, beraiak ez ziren han nengoenik ohartu. Gaua iritsi arte itxaron nuen. Gauaren belztasuna aprobetxatuz, katu bat bezala, ixil-ixilik eta erdi eskutuan ihes egin ahal izan nuen auzoko inguruetatik.

Oraindik dena ez zen konpondu, ordea; zauria minbera neukan, suaren pare erretzen ninduen eta odolak oraindik ez zion utzi irteteari, nahiz eta ez borborka. Horrez gain, kaleetan ez neukan babesik; soldaduak han eta hemen. Ondorioz, izebaren lagun batengana jotzera beharturik aurkitu nintzen. Emakume hark, zauria sendatu zidan eta herrialde hartatik irteteko bidea aurkitu. Baina, zer izango ote da han geratu ziren denetaz? ■

